

Jarduera orria

Hemen aurkeztuko ditugun jarduerak Gizarte Integrazioako Goi Mailako Prestakuntza Zikloko ikasleentzat prestatuta daude, eta oinarritzat dute “Construcción de la equidad de género en Los Cintis-Bolivia” izeneko garapenerako lankidetzaren proiektua.

Jarduerak 4-6 pertsonako taldetan egitea gomendatzen dugu.

1. jarduera

Zergatik dute emakumeek gizonek baino ordezkari eta partaidetza txikiagoa Los Cintis eskualdeko erabaki espazioetan, hau da, tokiko gobernuetan eta nekazarien sindikatuetan?

2. jarduera

Aukeratu 1. jardueran aipatutako arrazoi bakoitza bat, eta prestatu Los Cintis eskualdeko emakumeen ordezkari eta partaidetza politikoa hobetuko duen proiektu bat.

- Proiektuaren helburu espezifikoaren definizioa.
- Proiektuaren onuradun izango den herritar taldearen identifikazioa eta deskribapena.
- Esku hartzeko estrategiaren definizioa.
- Jardueren definizioa eta programazioa.
- Proiektua garatzeko beharrezko izango diren beste erakunde eta pertsonen identifikazioa.
- Metodologiaren eta ebaluazio tresnen definizioa

3. jarduera

2. jardueran prestatutako proiektua gauzatuz gero, zein giza eskubidetan egingo lukete aurrera? Azaldu eta garatu zure erantzuna.

4. jarduera

Aukeratu hemen aipatuta dauden sektoreetako bat, eta bildu informazioa zure probintzian sektore horretan gizonek eta emakumeek duten partaidetzari buruz. Gizonen eta emakumeen presentzia desorekatua bada, identifikatu desoreka hori azaltzen duten arrazoiak.

- Enpresa
- Politika
- Hezkuntza
- Kirola
- Hedabideak
- Kultura
- Etxea (etxeko lanak egiten eta seme-alabak, adinekoak edo mendekotasunen bat duten pertsonak zaintzen ematen duten denbora)

5. jarduera

Kontuan hartuta *Euskadiko Emakume Nekazarien Estatutua*, zer antzekotasun eta alde daude Los Cintis eskualdeko emakumeen egoerarekiko?

